

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradua hasi da

2009/09/22

Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako campusean emango da aurtengo ikasturtetik aurrera Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradua. Hori dela eta, gradu hau emango duen espainiar unibertsitate bakarra eta Europako bigarrena izango da; gradua Finlandiako hezkuntza-ereduan oinarrituko da, berrikuntzaren eta ekintzailetzaren sorlekuko ereduan.

Orain arte unibertsitateko titulu hori Finlandian bakarrik ematen zen, ekintzailetzan oinarritutako irakas-eredu aitzindarien sorlekuan. 2009-10 ikasturtetik aurrera, ordea, Mondragon Unibertsitatean ere emango da. Hasieran Irungo campusean eskainiko du soilik eta datorren urtetik aurrera Oñatikoa ere bai. Aurten 28 ikaslek egingo dute gradu berritzaile hau.

Gradu titulu honen eskumenak eta hori sortu duten Finlandiako metodologienak hiru talde handitan sailkatu daitezke, oro har: taldean ikasi, taldean izan lider eta taldean ekin. Ikuspegi horren erdian beste ideia hau dago: talde batek banakoen baturak baino ekarpen handiagoa egiten duela. Karrerak nazioarteko profil argia du, eta ikasleak hiru egonaldia egingo ditu atzerrian: 2 hilabete Jyväskylä-n, Finlandian, lehenengo urtean, 15 egun Silicon Valley-n, AEBetan, bigarren urtean eta 15 egun gora datorren herrialde batean (Brasil, Errusia, India, Txina edo Mexiko) hirugarren urtean. Horrez gain, graduko hirugarren urtean sei hilabeteko trukea egin daiteke Erasmusekin eta laugarren urtean, Europako enpresa batean egin daiteke amaierako proiektua.

Ikasteko eredu hauen metodoa premisa honetatik abiatzen da: gauzak eta gauzak egiteko moduak zalantzan jarriko dituzten pertsonak behar ditu gizarteak. Horrela baino ez diogu emango sistemari berritzeko eta ekiteko behar adinako eraginkortasuna. Azken finean, enpresa, proiektu, negozio eta produktu berriak sortzeko eta gizartearen aberastasun handiagoa eragiteko, orain arte egindakoarekin konformatuko ez diren pertsonak behar ditugu. Eredu tradizionala ez da hori sortzeko eta gazteei igortzeko gai, beraz, beharrezkoa zen metodologia berri bat abian jartzea, berrikuntzaren eta ekintzaile izatearen kultura sortuko zuena.

Horrela sortu da graduko titulu hau, eta bertako arduradunen iritziz "taldean lana egin nahi dutenentzat diseinatuta dago, metodologia berriak esperimintatzeko eta kultura berriak ezagutzeko interesa dutenentzat". "XXI. mendeko enpresa-munduaren eskakizunei erantzuteko diseinatuta dago, etengabe aldatzen eta eboluzionatzen ari den horri. Titulu honek pertsonak trebatu eta prestatuko ditu parte hartzaileak, erantzuleak eta ekintzaileak izan daitezkeen eta egungo erakundeetako errealitateari aurre egiten jakin dezaten; beraien ekarpenarekin gizartearen garapenari lagunduko dioten pertsonak trebatu eta prestatuko ditu".

Titulu hau abian jarri eta diseinatzeko, 'Team Academy' delakoaren laguntza izan du unibertsitateak, Jyväskyläko Zientzia Aplikatuaren unibertsitateko unitate ekintzailearena, alegia, espezializatuta baitago talde-lana eta ekintzaren bidezko ikaskuntza bezalako metodologien bidez ekiten. Era berean, Europako Team Academy osoaren laguntza ere izan du, eredu hau eta bere metodologiak hainbat herrialdetan zabaltzeko lanean ari baita.

Finlandiako ekintzailetza maileri gaineratik begiratzea nahikoa da, fenomeno honen ideia bat izateko. Espainiako unibertsitateetatik irteten duten ekintzaileak %0,5 dira eta Finlandiakoetatik %4 eta esperientzia zehatzak kontuan izanez gero, Team Academy delakotik %30.



Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduak bost zutabe handi ditu: Finlandiako hezkuntza-eredua; taldean ikastea; mundu errealak eta biek elkarri eragitea, egiazko enpresa bat sortuta; nazioarteko esperientzia; proiektuarekiko grina eta gogo bizia.

Finlandiako hezkuntza-eredua

Gradu berriaren ikasteko metodoak Finlandiako Team Academyren ekintzarako unitatean du jatorria. Metodo horiek hamabost urte baino gehiagoz erabili dira Finlandian eta 2006an bertako Hezkuntza Ministerioaren aitoren berezia lortu zuten. Mondragon Unibertsitatea lankidetzara aktiboan aritu da Finlandiako Team Academy sarearekin eta esperientzia horri esker, eredu original berri bat sortu da Finlandiako metodoaren funtsa eta herrialde honen berezitasunak eta idiosinkrasiak dituen.

Horren emaitza da gure ereduak; erantzukizunen bidez autogestioa eta sormena sartu ditu, elkarriketarako espazioak, ekiten ikasten duten taldeak eta ikasleei autogestiorako gogo biziko erronkak hartzen uzten zaie, 'joyful challenges' delakoak; erkidego zentzua eta partekatutako erantzukizun kontzeptua.

Taldean ikastea

Ikasteko tresna nagusia taldeko lana edo 'team learning' da. Ikasle bakoitzak zenbait taldetan hartzen du parte eta talde horietan lana eginez ikasten du. Horren ondorioz, ekiten ikasten da, elkarri eragiten. Bestalde, negoziazioarekin, lider izatearekin, denbora kudeatzearekin, konpromisoak hartzearekin eta komunikazioarekin (ikaskuntza aldiari aldatzen doazen rolak) lotuta dauden eskumenak ere ikasten dituzte. Talde guztiek entrenatzaile edo team coach bat dute, taldean gertatzen denaren ikuspegi globala mantentze du team coach horrek eta taldearen ikaskuntza-prozesua bermatzen du.

Egiatzko enpresak.

Irakasteko eredu honen eta, ondorioz, gradu berriaren giltzarria da egiazko munduarekin interakzioan dagoela; hau da, ikasleek egiazko enpresa bat sortuko dute ikaskuntza prozesuan eta egiazko bezeroentzat eta egiazko proiektuentzat egingo dute lana.

Azken finean, titulazio honetako ikasleek taldean sortu beharko dituzte beraien enpresak, egiazko bezeroekin harremanetan jarri eta eskaintzak egin. Hau da, ikasleari ekintzaile eta enpresari izateko aukera eskaintzen dio graduak eta hori guztia ekiteko inguru seguru eta egokian.

Enpresa munduan egiaz sartzearen ondorioz, ikasleak enpresen funtzionamenduaren eta kudeaketaren berri izateaz gain, bere harremanen sarea sortuko du, bezeroekin eta inbertitzaileekin zuzeneko eta egiazko harremana izango du. Horri esker, egiazko esperientzia izango du merkatuan eta dagoeneko badauden enpresen edo enpresa berrien beharrak identifikatuko ditu, eta ikasketak amaitu aurretik abian jartzeko moduan izango da.

Nazioarteko esperientzia

Enpresa munduko arrakasta gero eta gehiago oinarritzen da herrialdeen arteko mundu mailako elkarrekinean eta nazioarteko merkatuetan. Enpresek ikuspegi globaleko profesionalak behar dituzte. Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduak programan ikasleek banako truke-programa egiteko aukera dute, era berean, ikasteko bidaiak edo "learning journeys" egiteko aukera ere badute beraien taldearekin.

Ikasle guztiek ezagutuko dute Team Academy unitatea eta bi hilabetez ekintzaile gazteen, coachen eta team journeysekin nazioarteko taldeen sarean ikasiko dute. Gainera, trebakuntzarako bidaiak egingo dituzte; bidaiak horietako batean Silicon Valleyra joango dira, AEBetara, eta bestean gora datorren herrialde batera (Txina, India, Brasil edo Mexiko etab.), ekintzailetzaren kulturarekin harremanetan jarri eta inguru horietan nola aritzen diren eta enpresa berriak nola sortzen diren jakiteko.